Agintariak eta Langileria

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRIZAINGO SAILA

4926

EBAZPENA, 2010eko urriaren 8koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, zeinen bidez deialdia egiten baita Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente eta agente lehena kategoriako karrerako funtzionarioentzako Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroan sartzeko hautaketa-prozeduran parte hartzeko.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 7. artikuluan eta, Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 52. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzak ezarritako helburuen arabera, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Zuzendaritzak deialdia egiten du Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente eta agente lehena kategoriako karrerako funtzionarioentzako Bide Segurtasunean Espezializatzeko ikastaroan sartzeko hautaketa-prozeduran parte hartzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

1.– Deialdia egiten da Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente eta agente lehena kategoriako karrerako funtzionarioentzako Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroan oposizio bidez sartzeko hautaketa-prozeduran parte hartzeko.

2.– Guztira 217 plaza izango dira. Horietatik 190 agenteentzat eta 27 agente lehenentzat.

Bigarrena.– Izangaien betekizunak.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek, onartuak izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Eskabidea aldez aurretik egitea.

b) Ertzaintzaren karrerako funtzionario izatea.

c) Ertzaintzaren agente edo agente lehena kategorian jarduteko egoera-administratiboa izatea.

Autoridades y Personal

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

4926

RESOLUCIÓN de 8 de octubre de 2010, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca procedimiento selectivo para acceso al Curso de Especialización en Seguridad Vial para funcionarios y funcionarias de carrera de la Categoría de Agente y de Agente Primero de la Escala Básica de la Ertzaintza.

De conformidad con lo establecido en el artículo 7 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco y el artículo 52 y siguientes del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco, según los objetivos establecidos por la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior, la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco procede a la convocatoria de procedimiento selectivo para acceso al Curso de Especialización en Seguridad Vial para funcionarios y funcionarias de carrera de la Categorías de Agente y Agente 1.º de la Escala Básica de la Ertzaintza, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– Objeto de la convocatoria.

1.– Se convoca procedimiento selectivo por el sistema de oposición, para acceso al Curso de Especialización en Seguridad Vial para funcionarios y funcionarias de carrera de la categoría de Agente y Agente 1.º de la Escala Básica de la Ertzaintza.

2.– El número de plazas que se convocan es un total de 217. De estas, 190 plazas lo son de Agente y 27 plazas lo son de Agente Primero.

Segunda.– Requisitos de participación.

1.– Las personas que deseen tomar parte en el procedimiento selectivo, para ser admitidas, deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Efectuar solicitud previa.

b) Ser funcionario o funcionaria de carrera de la Ertzaintza.

c) Encontrarse en la situación administrativa de servicio activo en la categoría de Agente o Agente 1.º de la Ertzaintza.

d) Ebazpen hau argitaratzen den egunetik hasita, atxikitako lanpostu horretan gutxieneko iraunaldi berezi baten mende egon beharrik ez izatea, salbu aldi hori beteta badago, edo eskudun organoak errenuntzia onartuta badauka edo funtzionarioek mendekotasunaren ezaugarri eta arrazoi berberak dituen lanpostu bat lortu nahi ez badute, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 65.5 artikuluan eta abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 5.3 azken paragrafoa ezarritakoarekin bat etorriz.

e) BTP gidabaimena izatea.

f) A gidabaimen-mota 2 urteko antzinatasunaz izatea.

g) Bide Segurtasunean Espezializatzeko ikastaroetan sartzeko hiru deialdi baino gehiagotan parte hartu gabe egotea. Deialdi bat agortutzat emango da, eta zenbatgarritzat joko da, funtzionarioa ikastaroan parte hartzeko ontzat ematen den kasuan. Ez ordea, deia egiten duen organoak ikusten badu, nahi gabeko kausa dela-eta, izangaia ikastarora ez dela bertaratu edo ikastaroa ez duela amaitu. Hala denean, behar bezala justifikatuta egon beharko du.

2.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko atalean adierazitako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko azken eguna baino lehen.

3.– Onartua izateko eta hautaketa-prozeduran esku hartzeko nahikoa izango da izangaiek euren eskaeretan baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adieraztea, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Hori egiaztatzeaz deia egiten duen organoa arduratuko da ofizioz, Giza Baliabideetako Zuzendaritzari egoki deritzon ziurtapena eskatuz.

4.– Aurrekoa hala bada ere, izangairen batek, hautaketa-prozedurak eta prestakuntza-aldiak iraun bitartean, eskudun organoak, onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartzeko, deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzak ez dituela edo gertaera bidezko inguruabarrengatik ez dituela betetzen jakinez gero, hautaketa-prozeduratik kanpo utziko luke, edo hala dagokionean, prestakuntza-alditik kanpo, interesatuari entzun ondoren.

Hirugarrena.– Eskaerak.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek eskaera bete beharko dute, Gurenet bitartez, sailen arteko intranet –Gurenet– horretan eskuragarri izango den eskaera eredua erabiliz.

2.– Eskaerak aurkezteko epea 20 asteguneko izango da Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

d) No estar sujeta a un período de mínima permanencia en el puesto de trabajo a que esté adscrita, a la fecha de la publicación de la presente Resolución, salvo que dicho tiempo estuviera cumplido, o que por el órgano competente se hubiera aceptado la renuncia, o que se aspire a otro puesto sometido a igual sujeción y razón de la misma, de conformidad con lo establecido en los artículos 65.5 de la Ley 4/1992, de 17 de julio y 5.3 párrafo último del Decreto 388/1998, de 22 de diciembre.

e) Estar en posesión del permiso de conducir clase BTP.

f) Estar en posesión del permiso de conducir clase A con una antigüedad de 2 años.

g) No haber participado en tres o más convocatorias para acceso a cursos de Especialización en Seguridad Vial. Se entenderá agotada una convocatoria y por tanto computable, cuando el funcionario o funcionaria haya sido admitido a tomar parte en la misma, salvo que la incomparecencia o no finalización del curso haya obedecido a causa involuntaria debidamente justificada, que haya sido así apreciada por el Órgano convocante.

2.– Quienes deseen tomar parte en el procedimiento deberán reunir todos los requisitos establecidos en el apartado anterior a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

3.– Para que la persona pueda ser admitida y tomar parte en el procedimiento selectivo, bastará con que manifieste en su solicitud que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas, referidas siempre a la finalización del plazo de presentación de solicitudes, cuya comprobación se llevará a cabo de oficio por el órgano convocante, para lo que requerirá la oportuna certificación de la Dirección de Recursos Humanos.

4.– No obstante lo anterior, si en cualquier momento del procedimiento selectivo o durante el curso de formación, llegara a conocimiento del órgano competente para aprobar la relación de personas admitidas y excluidas que alguna de ellas carece, inicialmente o por circunstancias sobrevenidas, de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, la excluirá del procedimiento selectivo, o en su caso del curso de formación, previa audiencia de la misma.

Tercera.– Solicitudes.

1.– Quienes deseen tomar parte en el procedimiento selectivo deberán formalizar solicitud a través de la intranet departamental Gurenet, cumplimentando el modelo de solicitud que se encontrará disponible en la misma.

2.– El plazo para presentar solicitudes será de 20 días hábiles a contar desde el siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Eskabidean oposizio-aldiko ariketak egiteko hautatutako hizkuntza adierazi behar da, euskara edo gaztelania.

Laugarrena.– Izangaiak onartzea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean jarriko da jendaurrean.

2.– Baztertutako izangai bakoitzari buruz, baztertu izanaren arrazoiak eman beharko dira aditzera behin-behineko zerrenda horretan. Erreklamazioak aurkezteko eta eskaerak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko 10 asteguneko epea izango dute.

3.– Aurkeztutako erreklamazioak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren ebazpenean onartu eta baztertuko dira eta, horren bitartez, onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda behin betiko egingo da. Zerrenda hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean jarriko da jendaurrean.

Bosgarrena.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Oposizio-aldiko probak zehazteko, garatzeko eta ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzaile bat izango da uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren eta Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen aurreikuspenen arabera. Epaimahaia mahaiburu batek, lau bokalek eta idazkari batek osatuko dute.

Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideen eta ordezkoen izendapena Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren ebazpenaren bitartez jarriko da jendaurrean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean.

2.– Epaimahai Kalifikatzailearen jarduna organo kolegiatuen funtzionamenduaren arau erregulatzaileek arautuko dute.

Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 28. eta 29. artikuluetan bildutako abstentzio eta errefusatze kausak ezarriko zaizkie.

3.– Hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa Epaimahai Kalifikatzaileari dagozkio, autonomia osoz jokatuz. Epaimahai hori prozeduraren objetibotasunez arduratuko da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak, bere jardunerako, -hautaketa- sistema osatzen duten probetarako-, aholkulari edo adituen laguntza izan dezake. Horien lana, beren berezitasun-jarduna ikusirik, aholkatzea eta teknikoki laguntzea izango da.

3.– En la solicitud, se deberá hacer constar la lengua, euskera o castellano, en que se desee realizar las pruebas de la oposición.

Cuarta.– Admisión de aspirantes.

1.– Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Directora de la Academia de Policía del País Vasco aprobará la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

2.– La relación provisional expresará, con referencia a cada persona excluida, las causas que hubieran motivado su exclusión, concediendo un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones y subsanar los defectos de que adoleciera la solicitud.

3.– Las reclamaciones presentadas serán aceptadas o rechazadas en la Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco por la que se eleve a definitiva la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

Quinta.– El Tribunal Calificador.

1.– Al objeto de la determinación, desarrollo y evaluación de las pruebas de la oposición se constituirá un Tribunal Calificador, conforme a las previsiones de la Ley 4/1992, de Policía del País Vasco, y el Decreto 315/1994, de 19 de julio, que estará integrado por un Presidente/a, cuatro Vocales y un Secretario/a.

El nombramiento de las personas que integran el Tribunal Calificador y sus suplentes se hará público en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco, mediante Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

2.– La actuación del Tribunal Calificador se regirá por las normas reguladoras del funcionamiento de los órganos colegiados.

A las personas que integran el Tribunal Calificador les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas en los artículos 28 y 29 de la Ley de Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El desarrollo y evaluación de las pruebas que integran el sistema selectivo corresponderá al Tribunal Calificador, que actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria.

4.– El Tribunal Calificador podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personal asesor o especialista, para todas o alguna de las pruebas de que consta el sistema selectivo, quienes se limitarán a prestar su asesoramiento y colaboración técnica en el ejercicio de su especialidad.

5.– Hautaketa-sistema garatzeko beharrezko diren neurriak hartu ahal izango ditu Epaimahaiak deialdi honetan finkatuta ez dauden guztietan, eta gainera, deialdiko oinarriak interpretatzeak eta aplikatzeak eta euren lanetarako jardunak sortu ahal dituzten arazo guztiei ebazpena emateko ahalmena izango du.

6.– Epaimahaiak ezin izango ditu deitutako ikastokiak baino ikasle gehiago hautatu. Horrelakorik gertatuz gero, gehiagoko horiek baliogabetuak izango lirateke eskubide osoz.

7.– Epaimahai Kalifikatzailearen Akordioak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-taulan jarriko dira jendaurrean.

8.– Epaimahai Kalifikatzaile honetan parte hartzeagatik legez ezarritako ordainsariak emango dira.

Seigarrena.– Hautaketa-prozedura.

Hautaketa-prozedura oposizio bitartez gauzatuko da, eta horretan gaitasun-probak, proba teorikoak edota praktikoak egingo dira, gaitasuna eta haien arteko lehentasun-hurrenkera zehaztuz.

Zazpigarrena.– Oposizioa.

Oposizioan ondorengo probak izango dira:

1.– Ezagupenen proba, nahitaezkoa eta baztertzekoa. Ebazpen honetako I. eranskinean agertzen diren gaiei buruzko ariketa bat edo batzuk egingo dira, Epaimahai Kalifikatzaileak zehaztutakoak.

Gehienez 60 punturekin baloratuko da eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, gutxienez 30 puntu lortzen ez badute.

2.– Gaitasun probak, nahitaezkoa eta baztertzekoa. Ondorengo aldagarriak baloratuko dira: ahozko arrazonamendua, arrazonamendu abstraktua eta espazio-arrazonamendua.

Gehienez 40 punturekin baloratuko da, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, gutxienez 20 puntu lortzen ez badute.

Zortzigarrena.– Oposizioko proben garapena.

1.– Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik bi hilabete igaro arte ezingo dira hasi probak.

2.– Lehenengo azterketa noiz, zein ordutan eta non egingo den gutxienez zazpi egun natural lehenago iragarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Gainerakoak noiz eta non egingo diren ere Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean argitaratuko dira, gutxienez 72 ordu lehenago.

3.– Epaimahai Kalifikatzaileak egin ahal izango ditu probok edo oposizioa osatzen duten ariketa des-

5.– El Tribunal Calificador podrá adoptar las medidas necesarias para el desarrollo del sistema selectivo en todo lo no previsto en las presentes bases, y resolver cuantas cuestiones se susciten relativas a su interpretación y aplicación, así como para el propio ejercicio de sus funciones.

6.– El Tribunal no podrá seleccionar un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho todas las propuestas que infrinjan tal limitación.

7.– Los Acuerdos del Tribunal Calificador se harán públicos en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

8.– La participación en el presente Tribunal Calificador dará lugar a la percepción de las indemnizaciones legales previstas.

Sexta.– El procedimiento selectivo.

El procedimiento selectivo será el de oposición, que consistirá en la celebración de pruebas de capacidad, teóricas y/o prácticas, para determinar la aptitud de los aspirantes y fijar el orden de prelación entre ellos.

Séptima.– La oposición.

La oposición constará de las siguientes pruebas:

1.– Prueba de conocimientos, de carácter obligatorio y eliminatorio. Constará de uno o varios ejercicios, determinados por el Tribunal Calificador, sobre los temas que figuran en el anexo I de la presente Resolución.

Esta prueba se valorará sobre un máximo de 60 puntos, quedando eliminados del proceso selectivo quienes no obtengan un mínimo de 30 puntos.

2.– Prueba de aptitud, de carácter obligatorio y eliminatorio. Encaminada a evaluar variables tales como: razonamiento verbal, razonamiento abstracto, razonamiento espacial.

Se valorará sobre un máximo de 40 puntos, quedando eliminados del proceso selectivo quienes no obtengan un mínimo de 20 puntos.

Octava.– Desarrollo de las pruebas de la oposición.

1.– Las pruebas de la oposición no podrán iniciarse hasta transcurridos dos meses desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– La fecha, hora y lugar de celebración de la primera prueba se anunciará en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco, con una antelación no inferior a siete días naturales. Los sucesivos anuncios de celebración de las restantes pruebas se harán públicos con una antelación mínima de setenta y dos horas, en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

3.– El Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas y de los distintos ejercicios

berdinak; hau da, ordena desberdinean eta egin edo ez. Azken honetan, ariketa edota proba desberdinen emaitzak deialdiaren oinarrietan agertzen diren hurrenkeran argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuan parte hartu duten izangai kopurua ikusirik eta probak egiteko zerbitzu beharrizanak kontuan harturik egingo dira probak, Epaimahai Kalifikatzaileak hala erabakiko du probak noiz -txanda desberdinetan- eta non egin.

4.– Epaimahaiak derrigorrezko probak edota ariketak egiteko finkatutako tokian, datan eta orduan agertzen ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik baztertuta utziko ditu behin betiko, baztertzearen arrazoia ezinbestekoa izan arren. Arau bera aplikatuko zaie edozein derrigorrezko probetara berandu bertaratzen diren izangaiei.

Derrigorrezko probetarikoren batek ariketa bat baino gehiago izanez gero, eta horietariko batera agertu ezean edo berandu iritsiz gero, ez bertaratutzat joko da.

5.– Oposiziogileek parte hartzailearen nortasuna ziurtatzeko agiria eraman beharko dute proba guztietara; Epaimahai Kalifikatzaileak noizbait eska baitiezaieke hori erakusteko.

6.– Proben emaitzak, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiaren bitartez, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean emango dira argitara.

Bederatzigarrena.– Euskararen ezagutza-mailaren balorazioa.

1.– Euskararen ezagutza-maila merezimendu modura baloratuko da, Ertzaintzaren I. Hizkuntza-eskakizuna dutenei 10 puntu emanez eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Hautaketa-prozesuan ez da egingo inolako euskaren ezagupenei buruzko maila egiaztatzeko probarik.

2.– Ertzaintzaren I. hizkuntza-eskakizuna dutenei, EGA titulua edo baliokideak dituztenei Epaimahai Kalifikatzaileak ofizioz ziurtatuko die.

Hamargarrena.– Oposizioaren azken kalifikazioa.

1.– Oposizioaren azken kalifikazioa osatzen duten probetan edo ariketa desberdinetan lortutakoen gehiketatik aterako da eta, hala dagokionean, euskararen ezagutza-mailaren ebaluazioan ateratakoak areagotua. Horrek finkatuko du hautaketa-prozedurako parte hartzaileen hurrenkera.

que las puedan componer en orden diferente al establecido en esta convocatoria, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. En este caso, sólo se evaluará cada prueba respecto de quienes hayan superado la anterior.

Atendido el número de aspirantes, y de forma que se haga compatible la realización de las mismas con las necesidades del servicio, el Tribunal Calificador podrá decidir la celebración de las pruebas en diversas tandas.

4.– Se producirá la exclusión automática del procedimiento selectivo de quienes no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de las pruebas obligatorias en la fecha, hora y lugar que se señale, incluso por razones de fuerza mayor. La misma regla se aplicará a quienes concurran a la realización de cualquiera de las pruebas obligatorias una vez iniciada la ejecución de las mismas.

Si alguna de las pruebas obligatorias constara de varios ejercicios, se considerará incomparecencia la ausencia o retraso a cualesquiera de ellos.

5.– Se deberá comparecer a las diferentes pruebas portando documentación acreditativa de la identidad de la persona participante, cuya presentación podrá ser exigida por el Tribunal Calificador en todo momento.

6.– Los resultados de las pruebas se harán públicos mediante Acuerdo del Tribunal Calificador, en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

Novena.– La valoración del conocimiento de euskera.

1.– El conocimiento de Euskera se valorará como mérito, otorgando 10 puntos a quienes tengan acreditado el Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. No se realizará prueba alguna destinada a la acreditación del conocimiento del euskera en el desarrollo del proceso selectivo.

2.– A quienes tengan acreditado el Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza o se les haya reconocido por estar en posesión del título EGA o equivalentes, la comprobación y valoración de dicha acreditación se les realizará de oficio por el Tribunal Calificador.

Décima.– Calificación final de la oposición.

1.– La puntuación final de la oposición será la suma de las obtenidas en los distintos ejercicios o pruebas que componen la misma, incrementada con la que, en su caso, resulte de la evaluación como mérito del conocimiento del euskera y determinará el orden de prelación de las personas participantes en el procedimiento selectivo.

2.– Hurrenkera sailkapenean berdinketan ateraz gero, ondorengo irizpideekin bat etorriz ezarriko da ordena, ondorengo zerrendaren arabera:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

b) Ezagupenen proban lortutako puntuazio hoberena.

c) Gaitasun proban lortutako puntuazio hoberena.

3.– Hautaketa-prozeduraren kalifikazioa amaitu eta gero, Epaimahai Kalifikatzaileak onetsi egingo du eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean argitaratu eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Zuzendaritzari igorriko dizkio ondorengoak:

a) Hautaketa-prozedura gainditu dutenen behin betiko zerrenda, hain zuzen, kategoria bakoitzean lortutako puntuazio altuenetik gutxienera adierazten duen zerrenda.

b) Hautatutako izangaien zerrenda, sailkapenean lehentasun-hurrenkerari jarraituz, hautaketa-prozedura gainditu dutenek osaturikoa eta deitutako plazetan sartzen direnak.

4.– Aurreko atalean ezarritako argitalpen eta Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroan sartu artean hautatutakoen zerrendan inguruabarren batengatik aldaketarik gertatuz gero, aldaketok zehazten dituen akordioa edo ebazpena Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean jarriko da jendaurrean.

Hamaikagarrena.– Betekizunak egiaztatzea.

Hautatutakoek Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunen konpultsatutako kopien egiaztagiriak edo jatorrizko agiriak, hala eskatzen zaienean.

Hamabigarrena.– Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroa.

1.– Hautatutakoak, 10.3.b) oinarrian xedatutakoaren arabera, Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroa egiteko Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak deituko ditu bere Ebazpenaren bitartez.

Hautatutakoen uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik hutsik geratzen diren plazak betetzeko, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren Ebazpenaren bidez, sailkapenean ondoren dauden izangaiek bete ahal izango dituzte, eskainitako plazak bete arte.

2.– Hautatutakoak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak banatu ahal izango ditu ondoz-ondoko txandetan. Ikastegiko irakasleen eginkizunen

2.– Los empates a puntuación en el orden de clasificación, se dirimirán conforme con los siguientes criterios en el orden que se establece:

a) La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

b) Mejor puntuación obtenida en la prueba de conocimientos.

c) Mejor puntuación obtenida en la prueba de aptitud.

3.– Concluida la calificación del procedimiento selectivo, el Tribunal Calificador aprobará y publicará en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco, y remitirá a la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco:

a) La relación definitiva de quienes han superado el procedimiento selectivo, por orden de mayor a menor puntuación obtenida.

b) La relación de personas seleccionadas, integrada por quienes hubieran superado el procedimiento selectivo siguiendo la prelación del orden de clasificación y tuvieran cabida en el número de plazas convocadas.

4.– Si entre la publicación establecida en el punto anterior y el acceso al Curso de Especialización en Seguridad Vial se produjeran variaciones por cualquier circunstancia en la relación de personas seleccionadas, se publicará en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco el Acuerdo o Resolución que determine tal modificación.

Undécima.– Acreditación de los requisitos.

Las personas seleccionadas deberán presentar en la Dirección de Administración y Servicios de la Academia de Policía del País Vasco, cuando sean requeridas, los documentos originales o copias compulsadas acreditativos de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria.

Duodécima.– Curso de Especialización en Seguridad Vial.

1.– Las personas seleccionadas según lo dispuesto en la base 10.3.b), serán convocadas mediante Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco para la realización del Curso de Especialización en Seguridad Vial.

Las vacantes generadas en la relación de personas seleccionadas, por renuncia o por incumplimiento de requisitos exigidos en la convocatoria, podrán ser cubiertas mediante Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco por las personas subsiguientes según el orden de clasificación, hasta completar el total de plazas convocadas.

2.– Las personas así seleccionadas podrán ser distribuidas por la Directora de la Academia de Policía del País Vasco en diversas tandas para el desarrollo

eta Ertzaintzaren zerbitzuaren eta bere antolaketaren arabera. Txanda desberdinetako atxikipenean 10.3.a) oinarrian ezarritako lehentasun hurrenkera jarraituko da zehaztasunez.

3.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak emango die hautatutakoei ikastaroan sartzearen berri, Ertzaintzaren Ikuskapen eta Administrazio Alorreko Administrazio Unitatearen bitartez.

4.– Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroa Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian egingo da. Ikastaro hau, ikasketa-planean aurreikusitakoaren araberakoa izango da, halaber, bertan adierazten den iraupena izango du.

5.– Ikastaroaren azken kalifikazioa Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Iragarki-oholean argitaratuko da, ikasketa-planean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

6.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak ebatziko du prestakuntza-aldia gainditzen ez dutenen baztertzea.

Hamahirugarrena.– Moduluen konbalidazioa.

1.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroaren hainbat modulu edo azpimodulu konbalidatu ahal izango ditu Ikasketa Planean aurreikusitako hitzetan. Ondorengoak hartuko dira kontuan:

a) Ofizioz, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak emandako ikastaroak gainditua dituztenei eta eman beharreko modulu beraren edukiak eman behar badira berriz ere.

b) Interesdunei dei eginez; idatziz egin beharko da konbalidazio eskaera eta 12.1 oinarrian aurreikusitako Ebazpenak agintzen duen hurrengo zazpi egun naturalen barruan. Aipatutakoa, Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 58. artikuluan ezarritako moduan egin beharko da.

2.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak trebakuntza ikastaroen eta moduluen konbalidazio taula jarriko du jendaurrean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean. Prestakuntza-aldia hasi baino lehen konbalidazio eskaerei ebazpena eman beharko die, beharrezko kudeaketak burutu ondoren.

Hamalaugarrena.– Bide-segurtasunean espezializatzeko lanpostu hutsak betetzea.

Ikastaroa gainditzen dutenek prestakuntza eta jasotako ezagupenak eskatzen diren lanpostuak betetzeko lanpostu huts guztiak eskatzera behartuta egongo dira. Horrela egin ezean, edozein lanpostu huts betetzera derrigortu ahal izango dira.

del curso. En la adscripción a las distintas tandas se seguirá estrictamente el orden de prelación establecido en la base 10.3.a).

3.– La comunicación a las personas seleccionadas para su incorporación al curso se tramitará por la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, a través de la Unidad de Administración de la División de Inspección y Administración de la Ertzaintza.

4.– El Curso de Especialización en Seguridad Vial se impartirá en la Academia de Policía del País Vasco de conformidad con lo previsto en el Plan de Estudios, con la duración que en el mismo se establece.

5.– La calificación final del curso se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco, de conformidad con lo previsto en el Plan de Estudios.

6.– La Directora de la Academia de Policía del País Vasco declarará la exclusión de quienes no superen el curso de formación.

Decimotercera.– Convalidación de módulos.

1.– La Directora de la Academia de Policía del País Vasco podrá convalidar determinados módulos o submódulos, en su caso, del Curso de Especialización en Seguridad Vial, en los términos previstos en el Plan de Estudios, en alguna de las siguientes circunstancias:

a) De oficio, a quienes hayan superado cursos impartidos por la Academia de Policía del País Vasco y cuyo contenido sea sustancialmente idéntico al del módulo en cuestión.

b) A instancia de las personas interesadas; la solicitud de convalidación deberá formalizarse por escrito, y en un plazo de siete días naturales desde que se dicte la Resolución prevista en la base 12.1 y habrá de realizarse en los términos previstos en el artículo 58 del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

2.– Mediante Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco se publicará en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco la tabla de convalidaciones por cursos y módulos y a continuación se resolverán las solicitudes de convalidación, previos los trámites oportunos, con anterioridad al inicio del curso de formación.

Decimocuarta.– Cobertura de vacantes de Especialización en Seguridad Vial.

Quienes superen el curso, estarán obligados a solicitar todas aquellas vacantes que requieran para su provisión de la formación y conocimientos adquiridos, pudiendo procederse, de no hacerlo así, a su adscripción con carácter forzoso a cualquiera de ellas.

Hamabosgarrena.– Azken xedapenak.

1.– Prestakuntza-aldiak dirauen bitartean, ikasleak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Erregimeneko Erregelamenduaren barne erregimeneko eta diziplinako arauen mende egongo dira eta, gehigarri moduan, ikas denborako hutsegitea ez denetan, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Diziplinazko Erregelamenduaren araudipean.

2.– Funtzionarioek Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroaren hiru deialditan parte hartu ahal izango dute gehienez. Deialdi bat agortutzat emango da, eta zenbatgarritzat joko da, funtzionarioa ikastaroan parte hartzeko ontzat ematen den kasuan. Ez ordea, deia egiten duen organoak ikusten badu, nahi gabeko kausa dela-eta, izangaia ikastarora ez dela bertaratu edo ikastaroa ez duela amaitu. Hala denean, behar bezala justifikatuta egon beharko du.

3.– Deialdi honetan parte hartzea borondatezkoa izango da.

4.– Ebazpen honen kontra, Administrazio bideari amaiera ematen diona, interesdunek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango diote eskudun Administrazio Auzigaietako Epaitegiari, Administrazio Auzigaietako Jurisdikzioko Lege Arautzailearen 14. artikuluarekin bat etorriz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu eta agertzen den hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi honetatik, Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik edo Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko organuetatik sor daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek administrazio prozedura erkidearen araudi erregulatzailean aurreikusitako kasuetan eta eran.

Arkaute, 2010eko urriaren 8a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.

Decimoquinta.– Disposiciones finales.

1.– Durante el curso de formación, el alumnado estará sometido a las normas de régimen interno y disciplinario del Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco y, con carácter supletorio, para aquellos supuestos en que el hecho no constituya simple falta de disciplina docente, a las normas de Régimen Disciplinario de los Cuerpos de Policía del País Vasco.

2.– Los funcionarios y funcionarias podrán participar en un Curso de Especialización en Seguridad Vial en un máximo de tres convocatorias. Se entenderá agotada una convocatoria, y por tanto computable, cuando se haya procedido a la admisión del funcionario o funcionaria a tomar parte en la misma, salvo que la incomparecencia o no finalización del curso obedezca a causa involuntaria, debidamente justificada, que será libremente apreciada por el órgano convocante.

3.– La participación en la presente convocatoria tiene carácter voluntario.

4.– Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo competente conforme al artículo 14 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los actos administrativos que deriven de la presente convocatoria, de la actuación del Tribunal Calificador o de los órganos de la Academia de Policía del País Vasco, podrán ser impugnados por los interesados en los casos y en la forma previstos en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común.

En Arkaute, a 8 de octubre de 2010.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
ELENA MORENO ZALDIBAR.

IKASGAIAK

EUSKADIKO BIDE SEGURTASUNEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2010-2014

Euskal Autonomia Erkidegoko bide Segurtasun Batzordea:

212/2008 Dekretua, abenduaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Bide Segurtasun Batzordearen antolamendua eta jarduteko modua arautzen dituena (abenduaren 31ko EHAA, 250. zk).

TEMARIO

PLAN ESTRATÉGICO DE SEGURIDAD VIAL DE EUSKADI 2010-2014

Comisión de Seguridad Vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

Decreto 212/2008, de 16 de diciembre, por el que se regula la organización y funcionamiento de la Comisión de Seguridad Vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV n.º 250, de 31 de diciembre).

Herrizaingo Saileko Egitura:

471/2009 Dekretua, abuztuaren 28koa, Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.

Ertzaintzaren egitura:

Agindua, 2010eko otsailaren 5ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura berria onetsi, eta, beraz, 2006ko martxoaren 15eko Aginduan onartutako orain arteko egitura aldarazten duena.

Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeria:

Atariko titulua: Legeriaren xedea eta jardute eremua.

I. titulua: Eskumenen gauzatzea eta koordinazioa.

II. titulua: Zirkulaziorako jokabide-arauak.

III. titulua: Seinaleak.

IV. titulua: Administrazioaren baimenak.

V. titulua: Arau-hausteak, zigorrak, kautelazko neurriak eta erantzukizuna.

VI. titulua: Zigor-prozedura eta errekurtsoak.

Eranskina: Definizioak: 1etik 3ra, eta 52tik 75era.

Errege-dekretua: Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorra.

II. eranskina: Ibilgailuei buruzko definizioak eta kategoriak.

Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legea:

Atariko titulua, lehen kapitulua: Aplikazio-eremua (1. eta 2. artikuluak).

III. titulua: Errepideko garraioaren zerbitzuak eta jarduerak, VII. kapitulua izan ezik.

Estructura del Departamento de Interior:

Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

Estructura de la Ertzaintza:

Orden de 5 de febrero de 2010, del Consejero de Interior, por la que se aprueba la nueva estructura de la Ertzaintza, modificando el contenido actual a la aprobada por Orden de 15 de marzo de 2006.

Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial:

Título Preliminar: Objeto de la Ley y ámbito de aplicación.

Título I: Ejercicio y coordinación de competencias.

Título II: Normas de comportamiento en la circulación.

Título III: De la señalización.

Título IV: De las autorizaciones administrativas.

Título V: Infracciones, sanciones, medidas cautelares y responsabilidad.

Título VI: Procedimiento sancionador y recursos.

Anexo: Definiciones: 1 a 3, y 52 a 75.

Real Decreto: Reglamento general de Vehículos.

Anexo II: Definiciones y categorías de los vehículos.

Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres:

Título Preliminar, Capítulo Primero: Ámbito de aplicación (artículos 1 y 2).

Título III: De los servicios y actividades del transporte por carretera, con excepción del Capítulo VII.